Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3643

AGINDUA, 2010eko uztailaren 1ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena; ikastetxeetako giroa euskalduntzeko 2010-2011 ikasturtean zehar eskolan ahozko adierazmena indartzeko laguntza eta dotazio deialdia zabaltzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, bere Nolega programaren bidez, eskola giroa euskalduntzeko hainbat ekintza antolatzen eta burutzen ari da. Ekintza horietariko bat, azken urteetako ibiliak erakusten duenez, eskola giroan hizkuntzarekiko klase emankizun formalez gainera hizkuntza lanketarako ariketa bizi eta naturalak bideratzea da; hots, euskara asignatura moduan emateaz gain, ikasle-irakasleen interesa eta sentipenak kilikatuz hizkuntza lantzea. Eginbide horri erantzuteko jokamolde bat baino gehiago daude eskueran: idazlan-lehiaketak, bertsolanketa, antzerkigintza, kantagintza, irratigintza eta kontalaritza besteak beste. Euskararen ahozko erabilera, hitzen ebakera zuzena eta doinuera egokia, bat-bateko jariakortasuna eta hitz-etorria bultzatzeak umearen hizkuntza-gaitasunari begira duen aparteko garrantziaz jabeturik, eskola-giroko ahozko adierazmenak gure ikasle-irakasleen artean arreta berezia eta Hezkuntza Administrazioaren bultzada sendoa behar duela deritzo Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Eginbehar horretaz jabeturik, eta aurreko urteetako ibiliari jarraiki, eskola-giroa euskaldundu asmoz 2010-2011 ikasturtean Eskola Antzerkigintza, Bertsolanketa, Kantagintza, Kontalaritza eta Irratigintza biltzen dituen deialdiaren bidez ikastetxe pribatuei bertatik bertarako laguntza-bideak eta ikastetxe publikoei dotazio gehigarriak eskaini beharra ikusten da.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Ikastetxeetako giroa euskalduntze aldera, 2010-2011 ikasturtean zehar eskola pribatuetan ahozko adierazmena indartzeko asmoz burututako saioak diruz eta ikastetxe publikoetan burututakoak dotazio gehigarriz, Agindu honen eranskinetan zehazten diren oinarri-arauen arabera, laguntzeko deialdi hau onartzea.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

3643

ORDEN de 1 de julio de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas monetarias y dotaciones para actividades escolares de refuerzo de la expresión oral destinadas a la euskaldunización del ámbito escolar durante el curso 2010-2011.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación, a través de su programa Nolega, está organizando y llevando a cabo diversas actividades encaminadas a la euskaldunización del ámbito escolar. Una de esas actividades, según muestra la experiencia de los últimos años, consiste en proponer ejercicios de gran viveza y naturalidad para la capacitación idiomática del alumnado, junto con lo que se considera clase convencional de lengua; es decir, además de impartir el euskera como asignatura, se potencia el estudio de la lengua estimulando el interés y los sentimientos de alumnos/profesores. Existen diversas vías para llevar a cabo dicha labor: concursos literarios, bersolarismo, actividades teatrales y de canto, radiofónicas y las relacionadas con la narrativa. El Departamento de Educación, Universidades e Investigación, consciente de la importancia que tienen, con miras a la capacitación lingüística del alumnado, el uso hablado del euskera, la pronunciación correcta y la entonación adecuada, la fluidez y la facilidad de palabra, considera necesario el prestar especial atención a la expresión oral de la escuela entre los alumnos/profesores, para lo que se deberá contar con el firme apoyo de la Administración de Educación. Consecuentemente, dando continuidad a la trayectoria marcada en los últimos años, estima necesario conceder ayudas a los centros escolares privados y dotaciones suplementarias a los centros públicos en el curso 2010-2011, mediante una nueva convocatoria conjunta de ayudas para las actividades escolares de teatro, de bersolarismo, de canto, actividades narrativas y radiofónicas, destinadas a la euskaldunización del ámbito escolar.

Por todo ello,

RESUELVO:

Artículo único.– Aprobar la convocatoria de ayudas para actividades escolares en centros privados y dotaciones suplementarias en los centros públicos a fin de reforzar la expresión oral destinada a la euskaldunización del ámbito escolar durante el curso 2010-2011 con arreglo a las bases reguladoras especificadas en los anexos de esta Orden.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Oinarri-arauek jardunbide kontuan begiz jo gabeko zertzelada orotarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak dioena hartuko da oinarri.

Bigarrena.– Bide administratiboa agortzen duen Agindu honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jar liteke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren aurrean, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenean, dagokion aretoan, esandako egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hirugarrena.– Deialdi hau mamitzeko beharrezko neurriak hartuko ditu Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak.

Laugarrena.– Agindu hau EHAAn argitaratzen den egunaren hurrengoan sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 1a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En todo lo no previsto por las bases en materia de procedimiento será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de reposición, ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el BOPV. Así mismo, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala correspondiente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir de la fecha señalada.

Tercera.– La Dirección de Innovación Educativa tomará las medidas necesarias para la correcta ejecución de la presente convocatoria.

Cuarta.– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de julio de 2010.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

I. ERANSKINA

IKASTETXE PRIBATUENTZAKO DIRU-LAGUNTZA LORTZEKO OINARRI-ARAUAK

ZER ETA NORI ZUZENDUA

1.– Deialdi honetako laguntza-jasotzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe pribatuak izango dira. Ahozko adierazmena indartzeko 2010-2011 ikasturtean hurrengo oinarrietan zehazten diren baldintzetan egindako saioak hartuko dira kontuan. Honetarako Euskal Autonomia Erkidegoko 2010eko aurrekontuetako IV. kapitulutik 92.980 euroko diru kopurua erabiliko da. Diru-zenbateko hori aldatu egin daiteke, eskaeren guztirako zenbatekoa kontuan hartuz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beste dirulaguntza programetan erabili gabe geratzen diren diruak erabiliz, beti ere azken hauen erabakiak hartu aurretik. Horrelakoetan Hezkuntza sailburuordearen ebazpenak horren berri emango du.

2.– Laguntza-deialdi honek Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ahozko adierazmena indartzeko saioak hartuko ditu kontuan: Eskola-antzerkigintza, Eskolako bertso-lanketa, Eskola-kantagintza, Eskola-

ANEXO I

BASES REGULADORAS DESTINADAS A LA AYUDA DE CENTROS PRIVADOS

1.– Podrán ser beneficiarios de estas ayudas los centros escolares privados de la Comunidad Autónoma del País Vasco que realicen durante el curso 2010-2011 actividades de refuerzo de la expresión oral en los términos que se especifican en las presentes bases. Para ello, se destina una partida presupuestaria de 92.980 euros del Capítulo IV de los presupuestos de la Comunidad Autónoma Vasca para 2010. Dicho importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Educación, Universidades e Investigación y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Educación.

2.– La presente convocatoria está destinada a subvencionar las actividades de refuerzo de la expresión oral en Educación Infantil, Educación Primaria y Secundaria que se señalan a continuación: actividades

kontalaritza eta Eskola-irratigintza. Aldi berean, deialdi honen diru-baliabideen zati bat (ikus 16. atala) Azpeitiko Antzerki Topaketetara doazen taldeen dirulaguntza modura erabiliko da.

3.– Laguntza deialdi honetara A, B eta D irakastereduetako ikasle-taldeak dituzten ikastetxeak bildu ahal izango dira.

A ereduko ikastetxeen kasuan, ahalegin berezia egingo da, programa hau indartzeko eta bertako ikasleria euskarara gerturatzeko.

Eskatzaileek zabalik baldin badute Herri Administrazioek emandako antzeko laguntzaren bat itzultzeko espedienterik edo zigor-agiririk, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei diru-laguntza eman eta ordaindu ahal izateko.

Zigor- edo administrazio-arloko zigorra jaso duten, eta horren ondorioz, diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu duten edo horretarako ezgaitzen duen lege-debeku baten eraginpean dauden erakundeek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu diskriminazioan erori izanagatiko lege-debekuak barne, ezin izango dute Agindu honetan araututako diru-laguntzen eta laguntzen deialdietara aurkeztu, zigorrak ezarritako aldian. Honen haritik, eskatzaileak arrazoiren baten eraginpean ez dagoela egiaztatzen duen zinpeko aitormena egin beharko du.

4.– Oinarriz ondoko hauek hartuko ditu kontuan laguntza-deialdi honek:

– Eskola-antzerkiaren arloan: hasi antzerki lan klasikoetatik eta, txotxongiloa barne, ahozko hizkuntza eta adierazpena lantzeko baliagarri gerta daitezkeen antzerki mota guztietaraino.

– Eskolako bertso-lanketaren arloan: hasi bertso-paperak irakurtzetik eta, aurrez prestaturiko bertso abestuak barne, bat-bateko bertsoetaraino.

– Eskola-kantagintzaren arloan: abesti klasikoetatik hasita, herrikoiak barne, ahozko hizkuntza eta adierazpena lantzeko baliagarri gerta daitezkeen abesti mota guztietaraino.

– Eskola-kontalaritzaren arloan: hasi ipuin-kontaketaren teknikak lantzetik, kontakizunak, poesiak, alegiak, pasadizoak, txisteak, eta ahozko adierazmena indartzeko balio lezakeen beste edozein baliabidetaraino.

– Eskola-irratigintzaren arloan: hasi irratiaren teknika lantzetik eta, emankizun xumeenak barne, emankizun osatu eta mamitsuetaraino.

5.– Euskara hutsean edo nagusiki euskaraz prestaturiko ahozko adierazmenaren lanketara mugatzen da laguntza-deialdi hau.

escolares de teatro, de bersolarismo, de canto, de narrativa y de radio. Así mismo, parte de esta partida está dirigida a financiar a los grupos que acudan a las jornadas denominadas «Azpeitiko Antzerki Topaketak» (véase el punto 16).

3.– Se podrán acoger a esta convocatoria alumnos y alumnas de los modelos A, B y D.

Se hará un esfuerzo especial para reforzar este programa en los centros de modelo A, y acercar, así, al alumnado de dichos centros a actividades promotoras del euskara.

En caso de hallarse incurso en cualquier procedimiento sancionador o de reintegro iniciado en el marco de ayudas de la misma naturaleza, la concesión y abono de la ayuda estará condicionada a la terminación de dicho procedimiento.

No podrán concurrir a las ayudas reguladas por la presente Orden quienes se hallen incursos en alguna de las causas establecidas en el apartado 5 del artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, modificado por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. A este respecto, los solicitantes deberán presentar una declaración jurada en la que certifiquen que no se encuentran en ninguna de las causas descritas en el citado artículo.

4.– Esta convocatoria contemplará los siguientes tipos de actividades:

– En el ámbito de las actividades de teatro escolar: teatro clásico, marioneta y todos aquellos géneros teatrales que puedan resultar útiles para la práctica del lenguaje y la expresión oral.

– En el ámbito de las actividades de bersolarismo: desde la lectura de «bertso-paperak», incluyendo el canto de versos preparados de antemano, hasta la improvisación de los mismos.

– En el ámbito de las actividades de canto: canciones clásicas, canciones populares y todos aquellos géneros de canto que puedan resultar útiles para la práctica del lenguaje y expresión oral.

– En el ámbito de las actividades escolares narrativas: aprendizaje de las técnicas para contar cuentos, incluyendo relatos, poesías, fábulas, sucesos y chistes, así como todas aquellas actividades que puedan resultar útiles para la práctica del lenguaje y expresión oral.

– En el ámbito de las actividades escolares de radio: desde el aprendizaje de las técnicas radiofónicas, incluyendo emisiones radiofónicas sencillas, hasta emisiones más elaboradas y complejas.

5.– Esta convocatoria de ayudas se limita a las actividades que se lleven a cabo o bien íntegramente o bien principalmente en euskera.

6.– Ikastetxe bakoitzak eskabide-orri bakar bat aurkeztuko du deialdi honetara. Ahozko adierazmena indartzeko saioen eta emanaldien zehaztasunak aipatu eskabidean jasoko dira.

7.– Ahozko adierazmenaren lanketa, oinarriz, ohiko ikasgelako ikasleekin egingo da. Gelako irakasleetako bat edo batzuk izango dira ekimen hauen arduradun eta ikastetxeko ahozko adierazmena indartzeko planean txertatuko dira ekimenok.

8.– Laguntza-deialdi honek ondoko fase hauek hartuko ditu kontuan:

a) Prestakuntza-fasea: ahozko adierazmena indartzeko proposatzen diren saioen lehen asmoarekin hasten den unetik lehen emanaldiaren eguna arteko langintza.

b) Emanaldiak: ahozko adierazmena indartzeko eskolatik kanpora egiten diren saioak.

9.– 2010-2011 ikasturtean burutuko den Ahozko adierazmenaren lanketa hartuko du deialdi honek kontuan. Prestakuntza-faseak, gutxienez, hilabeteko iraupen-hedadura izango du eta 2011ko martxoaren 31rako, beranduenik, burutua izan beharko du. Fase honetan langintza etenik gabe burutzea zaindu beharko da eta nagusiki irakastorduen barnean mamitu.

10.– Ahozko adierazmena landu duen talde bakoitzak hiru emanaldi eskaini beharko ditu, gutxienez, 2010-2011 ikasturtean. Lehen emanaldia nork bere ikastetxeko ikasle eta/edo gurasoentzat eskainiko du; horretaz gainera beste bi emanaldi eskaini beharko ditu talde orok, gutxienez, bere eskualdeko beste bi ikastetxetan, bertako ikasleentzat. Emanaldi hauek beste nonbait egitea komenigarria ikusten bada, eskabidean emango da honen berri zehatz eta arrazoitua.

11.– Emanaldi bakoitzean ahozko adierazmena landu duen talde bat baino gehiago bildu daiteke egoki ikusten bada. Bestalde, talde batek arlo ugari landu baditu, guztien azalpena egin dezake emanaldi osatu bakarrean.

12.– Eskola-Irratigintza lantzen duten taldeen kasuan lau irratsaio grabatu beharko dituzte. Irratsaio hauek bere eskualdeko beste bi ikastetxetara igorri beharko dira. Lau irratsaio hauen iraupena gutxienez 20 minutukoa izango da guztira. Kasetea/CDa jasotzen duen ikastetxeak irratsaiook ikasleekin entzun eta dagokion balorazio orria beteko du.

ESKABIDEAK

13.– Laguntza-deialdi honetara bildu nahi duen edozein ikastetxek, 2010eko irailaren 1etik hasi

6.– Los centros que quieran acogerse a la presente convocatoria deberán cumplimentar un único impreso de solicitud, con expresión de las actividades y actuaciones a realizar para reforzar la expresión oral.

7.– Las actividades de refuerzo de la expresión oral se llevarán a cabo fundamentalmente con los alumnos del aula habitual, de modo que uno o varios profesores del aula serán los responsables de las actividades correspondientes, actividades que, por otro lado, se integrarán en el plan del centro para el refuerzo de la expresión oral.

8.– Esta convocatoria contempla las siguientes fases:

a) Fase de preparación: las actividades comprendidas entre el momento en que se inicia el proyecto y el día de la primera actuación.

b) Actuaciones: las actividades extraescolares destinadas a reforzar la expresión oral.

9.– Esta convocatoria contempla las actividades de refuerzo de la expresión oral que se desarrollen durante el curso 2010-2011. La fase de preparación tendrá, como mínimo, una duración de un mes y deberá estar completamente terminada para el 31 de marzo de 2011. Esta fase se llevará a cabo de forma continuada y se desarrollará principalmente dentro del horario lectivo.

10.– Todo grupo que haya trabajado la expresión oral deberá ofrecer, como mínimo, tres actuaciones durante el curso 2010-2011. La primera actuación estará destinada a los alumnos y alumnas y/o padres y madres del propio centro y las dos siguientes se realizarán en otros dos centros escolares de la comarca, para los alumnos y alumnas de los mismos. Si se juzgase conveniente llevar a cabo estas actuaciones en algún otro lugar, se dará cuenta detallada y razonada de ello en la solicitud.

11.– Si se estima conveniente, en cada actuación podrán tomar parte más de un grupo que haya desarrollado la actividad correspondiente de refuerzo de la expresión oral. Por otra parte, si un mismo grupo ha trabajado en varias áreas, podrá reflejarlas integrándolas en la misma actuación.

12.– Los grupos que lleven a cabo actividades escolares de radio deberán grabar cuatro programas de radio, los que serán enviados a otros dos centros de la zona. Los cuatro programas de radio tendrán una duración mínima de 20 minutos. Los centros que reciban el correspondiente casete/CD deberán escucharlo con los alumnos y alumnas y cumplimentar la correspondiente hoja de valoración.

SOLICITUDES

13.– Todo centro que quiera acogerse a la presente convocatoria deberá cumplimentar el correspondiente

eta 2010eko urriaren 1era bitartean, egun biak barne, berariazko eskabide-orria bete eta, beharrezko adostasun-azalpena arduradunak eta zuzendariak sinaturik eta ekintza-planaren begiz jotako aurrekontua eta eskatzen den laguntza zehaztuz, lekuan lekuko Hezkuntza Ordezkaritzan aurkeztu beharko du. Bestela, epe horren barruan postan sobre irekian aurkeztu beharko du ziurtatzera, zigilua eta data eskabideari berari ezarri ahal izateko, eta honako helbide honetara bidali: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Nolega atala). Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz; edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezartzen den edozein administrazio-gunetan aurkeztea.

Eskabide orriak Hezkuntza Ordezkaritzetan eskura daitezke.

Administrazioan jasotako eskabidean hutsune edo osatu beharren bat sumatuko balitz, honen berri emango zaio eskatzaileari eta 10 eguneko epea emango zaio eskabidea osa dezan. Epe horretan eskabidea osatzen ez badu, bere eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

ESLEIPEN-IRIZPIDEAK ETA ZENBATEKOAK FINKATZEKOAK

14.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren onarpena jasotako eskabideek, ekimena prestatu eta gutxienez hiru emanaldi eskaintzeagatik, dirulaguntza eskuratuko dute. Oinarrizko zenbateko hau ondoko eginbehar hauetarako erabiliko da:

Joan-etorri gastuak, eskualde barruko emanaldiei dagozkienak.

Baliabide materialen gastuak (bibliografia, janzkiak, dekoratuak, audio-zintak…).

Irizpide nagusi moduan, kontuan izan bedi ahozko adierazmena indartzeko deialdi honek hizkuntza-gaitasuna sendotzea duela helburu. Beraz, efektu artistikoak, gorputz-adierazmena, audio eta bideo-efektuak eta antzeko xedeak hobetzearren egin litezkeen gastuak ez dira berariaz lagunduko deialdi honetan.

15.– Baldintzak betetzen dituzten ikastetxe guztiak dira diru-laguntzen onuradun. Eskabideak aztertu eta ondorengo irizpideak kontuan hartuta laguntza-proposamenak egiteko, honako kide hauez osaturiko batzordea izendatuko du Hezkuntza sailburuordeak:

impreso de solicitud, con la expresión de conformidad firmada por el responsable de la actividad y el director del centro, incluyendo el presupuesto previsto de la actividad y especificando la ayuda que se solicita, y entregarlo en el plazo comprendido entre el 1 de septiembre de 2010 y el 1 de octubre de 2010, ambos inclusive, en la Delegación de Educación correspondiente, o bien enviarlo dentro de ese mismo plazo por correo; en este caso el impreso de solicitud deberá ser presentado en la oficina de correos para su certificado en sobre abierto, a fin de que sea sellado y fechado, y se enviará a la siguiente dirección: Gobierno Vasco. Departamento de Educación, Universidades e Investigación (Sección Nolega). Calle Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Asimismo, podrá ser entregado en cualquiera de las dependencias administrativas establecidas en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Los impresos de solicitud estarán a disposición de los interesados en las Delegaciones Territoriales de Educación.

Si en la solicitud presentada se advirtiera alguna omisión o inexactitud, se le comunicará al interesado/a y se le concederá un plazo de 10 días para que proceda a subsanarlo. Si en dicho plazo no tiene lugar la subsanación solicitada, la solicitud se entenderá denegada, previa resolución según lo establecido en el artículo 42 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN Y DE DETERMINACIÓN DE LAS AYUDAS

14.– Las solicitudes aprobadas por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación percibirán la subvención por la preparación de iniciativas y por la presentación de tres actuaciones como mínimo. Esta cantidad se destinará a cubrir los siguientes gastos:

– Gastos de desplazamiento con motivo de las actuaciones que se llevarán a cabo en la comarca.

– Gastos de recursos materiales (bibliografía, vestuario, decorados, cintas de audio…).

Como criterio básico, ha de tenerse en cuenta que esta convocatoria de refuerzo de la expresión oral tiene como objeto principal el fortalecer la capacidad lingüística. Por tanto, esta convocatoria no subvencionará gastos destinados a los efectos artísticos, expresión corporal, efectos de audio y vídeo ni aquellos gastos destinados a mejorar finalidades similares.

15.– Serán beneficiarios de las ayudas todos aquellos centros que cumplan los requisitos. Para examinar las solicitudes y realizar las propuestas de subvención basándose en los criterios establecidos a continuación, el Viceconsejero de Educación nombrará una comisión compuesta por los siguientes miembros:

– Antzerki-munduko ordezkaria.

– Bertsolaritza-munduko ordezkaria.

– Abesti edo musika-munduko ordezkaria.

– Kontalaritza-munduko ordezkaria.

– Irrati-munduko ordezkaria.

– Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo berak izenda dezan ordezkoa.

– Kultura Saileko ordezkaria.

– Berritzeguneetako Hizkuntza Normalkuntzako bi teknikari.

– Nolega ataleko bi teknikari.

16.– Deialdiaren zenbatekoa bi kontzeptutan banatuko da. Lehenak prestakuntzari eta emanaldiei erantzungo die. Bigarrena Azpeitiko Antzerki Topaketetara joatea egokitzen zaien ikastetxeen beharrei erantzuteko erabiliko da. Bigarren honetarako 2010-2011 ikasturtean 3.120 euro erabiliko dira gehienez. 19. atalean zehazten diren banaketa irizpideak aplikatu ondoren, aipatu diru kopuru hori agortu ez balitz, soberan dagoena lehen kontzepturako gordetako diru kopuruari gehituko litzaioke. Diru-zenbateko hori aldatu egin daiteke, eskaeren guztirako zenbatekoa kontuan hartuz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beste dirulaguntza programetan erabili gabe geratzen diren diruak erabiliz, beti ere azken hauen erabakiak hartu aurretik. Horrelakoetan Hezkuntza sailburuordearen ebazpenak horren berri emango du.

17.– Laguntzaren zenbatekoak, aurrez aipatutako lehen kontzeptuari dagokionez, ezingo du gastuaren % 100a gainditu, ez eta ikastetxe bakoitzeko 2.300 euroko muga ere.

18.– Jasotako eskabideei aurreko atalean ezarritako zenbatekoetan erantzuteko diru-ahalmenik ez bada batzordeak jarritako puntuazioetan oinarrituz hainbanatuko dira laguntzak. Horretarako, batzordeak, eskabideak aztertu eta laguntza-proposamenak egiteko, ondoren aipatzen diren irizpideak erabiliko ditu:

18.1.– Prestakuntza.

18.1.1.– Prestakuntzarako Oinarrizko Puntuazioa (POP) zehaztuko da. Puntuazio honek hiru adierazle hartuko ditu kontuan eta hauen batuketa egingo du:

POP = POTK + EE + SB

(POTK) Prestakuntzarako onartutako taldekopurua. Parte-hartzaileak zenbat talde jardungo diren zehaztuko du. Ondoko taula hau oinarri hartuta lortuko dute Prestakuntzarako onartutako taldekopuruari dagokion puntuazioa:

– Un representante del ámbito teatral.

– Un representante del ámbito del bersolarismo.

– Un representante del ámbito del canto o de la música.

– Un representante del ámbito de la actividad narrativa.

– Un representante del ámbito de la radio.

– El Director de Innovación Educativa o la persona que él designe.

– Un representante del Departamento de Cultura.

– Dos Técnicos de los Berritzegunes de Normalización Lingüística.

– Dos técnicos de la sección Nolega.

16.– El importe de la convocatoria se distribuirá en dos conceptos. El primero de ellos se destinará a la preparación y las actuaciones. El segundo a los gastos de los centros que acudan a las jornadas denominadas «Azpeitiko Antzerki Topaketak», para los cuales se destinarán como máximo 3.120 euros en el curso 2010-2011. Si en caso de que tras la aplicación de los criterios de distribución definidos en el punto 19 no se agotase dicha cantidad, el excedente se sumará a la cantidad reservada para el primer concepto. Dicho importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Educación, Universidades e Investigación y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución de la Viceconsejería de Educación.

17.– El importe destinado al primer concepto no podrá superar en ningún caso el 100% de los gastos, estableciéndose un límite máximo de 2.300 euros por centro.

18.– En caso de que no se cuente con disponibilidad económica suficiente para hacer frente a las cantidades establecidas en el punto anterior, las ayudas se prorratearán en base a las puntuaciones dadas por la comisión. A la hora de examinar las solicitudes y realizar la propuesta de ayudas, la Comisión se atendrá a los siguientes criterios:

18.1.– Preparación.

18.1.1.– Se determinará la Puntuación Básica de la Preparación (PBP). Dicha puntuación tendrá en cuenta tres indicadores, y constituirá la suma de los tres:

PBP = NGAP + AA + VA

(NGAP) Número de grupos admitidos para la preparación. Determinará el número de grupos en los que actuarán los participantes. La puntuación correspondiente al número de grupos admitidos en la preparación se extraerá en base a la siguiente tabla:

- Talde 1	1
- 2 talde	2
- 3 talde	3
- 4 talde	4
- 5-6 talde	5
- 7-8 talde	6
- 9-10 talde	7
- 11-12 talde	8
- 13-14 talde	9
- 15 edo 15 taldetik gora	10

Prestakuntzarako onartutako talde-kopuruaren indize hau (POTK) eskabidearen balorazio osoaren % 10 izango da gehienez.

(EE) Eragindako Esparruak. Planteatzen diren esparruetatik zenbatetan egiten duen baloratzen da. Ondoko formula erabiliko da horretarako:

Esparru-kopurua (1, 2, 3, 4, 5) x 2 = EE

Eragindako Esparru-kopuru hau (EE) eskabidearen balorazio osoaren % 10 izango da gehienez.

(SB) Saioaren Balioa. Planteatzen diren saioen berezitasunak baloratzen dira. Batzordeak ikastetxeen eskabideetan berezitasunen bat antzematen badu, bi tramotan kokatu ahal izango ditu proposamen berezi horiek: 1. tramoan finkatzen direnei % 2,5eko balioa emango zaie, eta 2. tramoan finkatzen direnei % 5ekoa.

Saioaren Balio hau (SB) eskabidearen balorazio osoaren % 5 izango da gehienez.

18.1.2.– Prestakuntzarako Oinarrizko Puntuazio (POP) honi bi graduatzailek eragingo diote:

(HN) ULIBARRI programan egoteak POP balioaren % 10ko igoera ekarriko du. Graduatzaile honek balorazio osoaren % 2,5eko igoera ekarriko du gehienez.

(AI) A indartua izateak POP balioaren % 10ko igoera ekarriko du. Graduatzaile honek balorazio osoaren % 2,5eko igoera ekarriko du gehienez.

(M) Mailari dagokion graduatzailea. HH, LMH, DBH eta BBB mailan egotea berezituko da. Haueta-ko bakoitzak, hurrenez hurren, POP balioaren % 10, % 20,% 30 edo % 40ko igoera ekarriko du.

Graduatzaile honek balorazio osoaren % 10eko igoera ekarriko du gehienez.

Ikastetxe batek hainbat mailatako taldeak aurkeztuz gero, maila gorena duen taldeari dagokion indizea ezarriko da.

- 1 grupo	1
- 2 grupos	3
- 3 grupos	3
- 4 grupos	4
- 5-6 grupos	5
- 7-8 grupos	6
- 9-10 grupos	7
- 11-12 grupos	8
- 13-14 grupos	9
- 15 grupos o más	10

El índice del número de grupos admitidos para la preparación (NGAP) constituirá como máximo el 10% de la valoración total de la solicitud.

(AA) Ámbitos Abarcados. Se valora el número de los ámbitos en los que se ha actuado de entre los planteados. Se aplicará la siguiente fórmula:

Número de ámbitos (1, 2, 3, 4, 5) x 2 = AA

El número de ámbitos abarcados (AA) constituirá como máximo el 10% de la valoración total de la solicitud.

(VA) Valor de la Actividad. Se valoran las particularidades de las actuaciones. En el caso de que la Comisión apreciara alguna particularidad en las solicitudes, podrá fijar dichas particularidades en dos tramos: 1. A las que se fijen en el tramo 1 se les dará un valor del 2,5%, y a las que se fijen en el tramo 2, un valor del 5%.

Esta valoración de la actividad (VA) constituirá como máximo el 5% de la valoración total de la solicitud.

18.1.2.– Esta puntuación básica de la preparación (PBP) estará sujeta a dos graduadores:

(HN) El Programa Ulibarri supondrá un incremento del 10% del valor de la PBP. Dicho graduador comportará como máximo un incremento de 2,5 de la valoración total.

(AR) El tener A reforzado supondrá un incremento del 10% del valor de la PBP. Dicho graduador comportará como máximo un incremento de 2,5 de la valoración total.

(N) El correspondiente al Nivel. Se diferenciará el estar en los niveles de EI, EP, ESO y BUP. Cada uno de ellos supondrá respectivamente un incremento del 10%, 20%, 30% o 40% de la PBP.

Dicho graduador comportará como máximo un incremento del 10% de la valoración total.

Si un centro presenta grupos de diferentes niveles, se aplicará el índice correspondiente al grupo de nivel superior.

Eragiketa hauek POP osatua (POPO) ematen digute. Bere kalkulua ondoko formularekin egiten da:

POPO = POP + HN + AI + M

18.2.– Emanaldiak.

18.2.1.– Emanaldietarako Oinarrizko Puntuazioa (EOP) zehaztuko da. Puntuazio honek lau adierazle hartuko ditu kontuan eta hauen batuketa egingo du:

EOP = EK + HKE + AU + HKH

(EK) Emanaldi-kopurua. Batzordeak ikastetxeek proposatzen dituzten emanaldi eta talde kopuruak aztertu eta 1-6 tramoetan finkatuko du emanaldietarako talde kopurua. EKren balioa formula honen bitartez definituko da:

EK = ETK (1, 2, 3, 4, 5, 6) x 3

Emanaldi-kopurua hau (EK) eskabidearen balorazio osoaren % 18 izango da gehienez.

(HKE) Herriz kanpoko emanaldiak. Ikastetxeak inguruko herrietan proposatzen dituen emanaldi kopurua aintzat hartuko ditu Batzordeak, eta tramo hauetan (HKET) kokatuko ditu:

- 1-3 emanaldi:	1
- 4-6 emanaldi:	2
- 7 emanaldi edo gehiago:	3

HKEren balioa formula honen bitartez definituko da:

HKE = HKET x 2,5

Herriz kanpoko emanaldiak (HKE) eskabidearen balorazio osoaren % 7,5 izango da gehienez.

(AU) Aurrekontu onartuak. Proposatzen diren ekimenen aurrekontu onartuak aztertzen dira gehigarri hau finkatzeko. Batzordeak eskabidea aztertu eta lau aurrekontu-tramoetariko batean finkatuko du ikastetxea. Tramoak ondoko hauek dira eta ondoko puntuazioa izango du bakoitzak:

- 600 euro bitartekoak:	1
- 601-1200 artekoak:	2
- 1201-1800 artekoak:	3
- 1801 eurotik gorakoak:	4

Gehigarri honek % 4ko igoera ekarriko du gehienez.

(HKH) Haur kopuru handia. Proposatutako emanaldiren batean parte hartuko duten haurren kopurua 55etik gorakoa denean, emanaldietarako oinarrizko puntuazioari (EOP) 8 puntu gehituko zaizkio.

Estas operaciones nos dan la Puntuación Básica Completa de la Preparación (PBCP), que se consigue con la siguiente fórmula:

PBCP = PBP + HN +AR+ N

18.2.– Actuaciones.

18.2.1.– Se determinará la Puntuación Básica de las Actuaciones (PBA). Dicha puntuación tendrá en cuenta cuatro indicadores, y constituirá la suma de los cuatro:

PBA = NA + AFL + PR + NNE

(NA) Número de Actuaciones. La comisión, a la vista del examen del número de grupos y actuaciones propuestos por los centros, fijará los grupos de actuaciones en 1-6 tramos. El valor del NA se definirá mediante la siguiente fórmula:

NA = NA (1, 2, 3, 4, 5, 6) x 3

El número de actuaciones (NA) constituirá como máximo el 18% de la valoración total de la solicitud.

(AFL) Actuaciones fuera de la localidad. La Comisión tomará en cuenta el número de actuaciones propuestas para las localidades vecinas, y las fijará en los siguientes tramos (TAFL):

- 1-3 actuaciones:	1
- 4-6 actuaciones:	2
- 7 actuaciones o más:	3

El valor del AFL se definirá mediante la siguiente fórmula:

AFL = TAFL x 2,5

Las actuaciones fuera de la localidad (AFL) constituirán como máximo el 7,5% de la valoración total de la solicitud.

(PR) Presupuestos aceptados. Para la determinación de este complemento se examinan los presupuestos aprobados de las iniciativas propuestas. La Comisión, una vez analizadas las propuestas, fijará los centros en cuatro tramos presupuestarios (TPR). Éstos serán los tramos y la puntuación correspondiente a cada uno de ellos:

- Hasta 600 euros:	1
- Entre 601 y 1.200:	2
- Entre 1.201 y 1.800:	3
- De 1.801 en adelante:	4

G Este complemento comportará un incremento del 4% como máximo.

(GNA) Gran número de alumnos y alumnas. En caso de que el número de alumnos y alumnas que participen en alguna actuación sea superior a 55, se añadirán 8 puntos a la puntuación básica de las actuaciones (PBA).

18.2.2.– Emanaldietarako oinarrizko puntuazio (EOP) honi bi graduatzailek eragingo diote:

(HN) Ulibarri programan egoteak EOP balioaren % 20ko igoera ekarriko du. Graduatzaile honek balorazio osoaren % 3,75eko igoera ekarriko du gehienez.

(AI) A indartua izateak EOP balioaren % 20ko igoera ekarriko du. Graduatzaile honek balorazio osoaren % 3,75eko igoera ekarriko du gehienez.

(M) Mailari dagokiona. HH, LMH, DBH eta BBB mailan egotea berezitu egingo da. Hauetako bakoitzak, hurrenez hurren, EOP balioaren % 10, % 20, % 30 edo % 40ko igoera ekarriko du.

Graduatzaile honek balorazio osoaren % 15eko igoera ekarriko du gehienez.

Ikastetxe batek hainbat mailatako taldeak aurkeztuz gero, maila gorena duen taldeari dagokion indizea ezarriko da.

Eragiketa hauek EOP osatua (EOPO) ematen digute. Bere kalkulua ondoko formularekin egiten da:

EOPO = EOP + HN + AI + M

18.3.– Laguntzaren zehaztapena.

Prestakuntzarako oinarrizko puntuazio osatuaren eta Emanaldietarako oinarrizko puntuazio osatuaren baturak ematen digu ikastetxeari dagokion puntuazioa (P).

P = POPO + EOPO

Aipatu bidea aplikatu ondoren, dagoen diru-kopuruaren hainbanaketa egingo da diru-laguntza (D) finkatzeko. Ondoko formula erabiliko da:

$$D = \frac{P \times (92.980 - \Sigma AL)}{\Sigma P}$$

19.– Azpeitiko Antzerki Topaketetara joateko nahia agertzen dutenen artean 6 ikastetxe aukeratuko dira. Aldez aurretik topaketa hauetan parte hartu ez duten ikastetxeak lehenetsiko dira. Horien artean P puntuazioan puntu gehien dutenak aukeratuko dira. Ikastetxearen kokapenaren arabera (AL), ondoko lurraldetasun irizpidea hartzen da banaketarako oinarri:

- Araba-Arabako Errioxa	4 modulu
- Araba-Gainontzekoa	3 modulu
- Bizkaia-Enkarterriak	4 modulu
- Bizkaia-Gainontzekoa	3 modulu
- Gipuzkoa	2 modulu
- Urola-Kosta eskualdea	1 modulu

18.2.2.– Esta puntuación básica de las actuaciones (PBA) estará sujeta a dos graduadores:

(HN) El Programa Ulibarri supondrá un incremento del 20% del valor de la PBA. Dicho graduador comportará como máximo un incremento de 3,75 de la valoración total.

(AR) El tener A reforzado supondrá un incremento del 20% del valor de la PBA. Dicho graduador comportará como máximo un incremento de 3,75 de la valoración total.

(N) El correspondiente al Nivel. Se diferenciará el estar en los niveles de EI, EP, ESO y BUP. Cada uno de ellos supondrá respectivamente un incremento del 10%, 20%, 30% o 40% de la PBA.

Dicho graduador comportará como máximo un incremento del 15% de la valoración total.

Si un centro presenta grupos de diferentes niveles, se aplicará el índice correspondiente al grupo de nivel superior.

Estas operaciones nos dan la Puntuación Básica Completa de las Actuaciones (PBCA) que se consigue con la siguiente fórmula:

EOPO = EOP + HN + AR + M

18.3.– Determinación de la ayuda.

La puntuación correspondiente al centro (P) es el resultado de sumar la puntuación básica completa de la preparación y la puntuación básica completa de las actuaciones.

P = PBCP + PBCA

Una vez aplicado el procedimiento indicado, se procederá al prorrateo de la cantidad disponible para la determinación de la subvención (S). Se utilizará la siguiente fórmula:

$$D = \frac{P \times (92.980 - \Sigma AL)}{\Sigma P}$$

19.– Se seleccionarán 6 centros entre los que manifiesten su intención de acudir a las jornadas denominadas «Azpeitiko Antzerki Topaketak». Tendrán prioridad aquellos centros que con anterioridad no hayan participado en dichas jornadas, y de entre éstos se seleccionarán aquéllos que tengan la puntuación (P) más alta. De acuerdo con la localización del centro (AL), se toma como base de distribución el siguiente criterio de territorialidad:

- Álava-Rioja Alavesa:	4 módulos
- Álava-Resto:	3 módulos
- Bizkaia-Encartaciones:	4 módulos
- Bizkaia-Resto:	3 módulos
- Gipuzkoa:	2 módulos
- Comarca Urola-Kosta:	1 módulo

Moduluko (M) 260 euroko laguntza finkatzen da 2010-2011 ikasturterako:

AL = M x 260 euro.

Garraiatu behar den ume kopurua 55tik gorakoa denean, berez dagokion moduluari bat gehiago erantsiko zaio.

EBAZPENA

20.– Laguntza-deialdiaren ebazpen-proposamena, prestakuntzari eta emanaldiari dagozkien dirulaguntza eta Azpeitiko topaketetan parte hartuko duten ikastetxeei dagokiena jasoko duena, egingo du Batzordeak. Batzordearen akta Hezkuntza sailburuordeari helaraziko zaio, eta honek dagokion Ebazpena hartu eta EHAAn jakinaraziko du sei hilabeteko epean, Agindu hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Aipaturiko epean ebazpen espresurik ematen ez bada, eskabidea ez dela aintzakotzat hartu ulertuko da. Aginpidedun organoak, dena dela, eskatutako laguntzari buruzko berariazko ebazpena emateko betebeharra du.

Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea agortzen eta bere aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren aurrean, argitaratu eta hilabeteko epean.

21.– Aurreko ikasturtean egindako lana biltzen duen galdekizuna eta ebaluazio-fitxak aztertu ondoren, Eskola-antzerkia landu duten talde batzuei 2010eko Azpeitiko Antzerki Topaketetara joateko aukera eskainiko die Batzordeak. Topaketa hauetan eskola-antzerkian diharduten taldeen erakuskari bat aurkeztuko da, bertako udalarekin elkar-lanean. Antzezlanaz gain, emanaldia osatzeko orduan, ahozko adierazmena indartzeko bestelako ekimenak ere erabili ahal izango dira.

ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

22.– Aurretiazko izaera duen ordainketa bakarrean gauzatuko da ordainketa eta Ebazpena argitaratu ondoren jarriko da tramitean. Diru-laguntza ematearen jakinarazpena jasotzen den egunetik hasi eta hamar eguneko epean ikastetxe onuradunek diru-laguntzari espresuki ez badiote ukorik egiten, diru-laguntza onartutzat joko da.

23.– Dirulaguntza jaso dezaten ikastetxeek, 2011ko ekainaren 30a baino lehen, bertako taldeen emanaldiirteerei dagozkien ebaluazio-fitxak, emanaldia edo irratsaioa jasotzen duten ikastetxeek beteak, eta langintzaren zer-nolakoa azaltzen duten galdekizunak behar bezala beteta bidali beharko dituzte 13. oinarrian adierazitako helbidera.

Para el curso escolar 2010-2011 se fija una ayuda de 260 euros por módulo (M):

AL = M x 260 euros.

Cuando la cifra de niños que se van a trasladar sea superior a 55, se añadirá un módulo más al módulo que corresponda.

RESOLUCIÓN

20.– La Comisión elevará propuesta de Resolución de la convocatoria de ayudas, que incluirá la subvención correspondiente a la preparación y actuaciones, y la correspondiente a los centros participantes en las jornadas de Azpeitia. El acta de la Comisión será remitida al Viceconsejero de Educación, quien dictará y hará pública la resolución oportuna en el BOPV con anterioridad al 30 de diciembre de 2010.

En caso de que no se dicte Resolución expresa dentro del plazo citado, deberá entenderse que la solicitud ha sido denegada. El órgano competente, sea cual sea, deberá resolver de forma expresa.

Dicha Resolución no agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso de alzada ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes contado desde el día de su publicación.

21.– Una vez analizados el cuestionario que recoge el trabajo desarrollado en el curso anterior y las fichas de la evaluación, la Comisión ofrecerá la posibilidad de acudir a las jornadas de Azpeitia de 2010 («Azpeitiko Antzerki Topaketak»), a algunos de los grupos que participan en actividades de teatro escolar. En dichas jornadas se presentará una muestra de los grupos participantes en actividades de teatro escolar, en colaboración con el ayuntamiento del lugar. Además de la representación, a la hora de completar la función, se podrá hacer uso de otras iniciativas encaminadas a potenciar la expresión oral.

ABONO DE LA AYUDA Y JUSTIFICACIÓN

22.– La ayuda se abonará con carácter previo y en un único pago, y se tramitará una vez publicada la Resolución. Si transcurridos diez días desde la recepción de la notificación de la concesión de la subvención el beneficiario no ha manifestado renuncia expresa de la citada subvención, ésta se entenderá aceptada.

23.– Los centros beneficiarios de ayudas deberán remitir, con anterioridad al 30 de junio de 2011 y a la dirección indicada en la base 13, las fichas de evaluación correspondientes a las actuaciones-salidas de los grupos autóctonos, cumplimentados por los centros receptores de la actuación o emisión radiofónica, además de los cuestionarios que describen la naturaleza del trabajo.

24.– Ikastetxeren batek laguntza jaso eta ekimena(k) aurrera eraman ez edota baldintzaren bat bete gabe utziko balu, laguntza itzuli egin beharko du Eusko Jaurlaritzaren Diruzaintza Nagusira, 1/1997 Legegintza Dekretuak, azaroaren 11koak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak arautzen duen bezala eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak (1992-02-07ko EHAA) zehaztutako prozeduraren arabera.

25.– Diru-laguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatuz gero, eta betiere diru-laguntzaren helburua bete bada, edo beste erakunde publiko edo pribaturen batek, aldi berean, bestelako diru-laguntza edo laguntzarik eman badu, diru-laguntzak emateko ebazpena alda daiteke. Horretarako, beharrezkoa den likidazio-ebazpena emango du Hezkuntza sailburuordeak eta horren bidez berregokitu egingo dira emandako diru-laguntzen zenbatekoak.

